# IZAERA F IZAKERA
# IZAN EZA lETI KOTiá

Zer edo da izaera --izan-era—? Nola ulertu bea dugu itz onen zentzuna? Izatearen egipena edo, izan gertatzea apika. Notin bat jayotzen da ta unealdi artan bertan ba-da, izaeran dago oso-osorik; jayotzean bizian sartzen da ta izaeran ere batera. Baña bizia ez da izaera, ez eta izaera bizia, naiz eta gauza berben lez agertuaŕen. Bizidun bat bizi dan bitartean izaeran dago zalantzik gabe, baña iltzen bada ta oŕela bizia ere uzten badu, izaeran jaŕaitzen dala egitzat onartu beat da, gorpua biurtuxxrik. Ba-dakigu bizia bizidun batentzat noiz amaitzen dan, bere eriotzean; baña izaera noiz amaitzen da? Ora argi ez dagoen asmoa. Iltzean bakoitza nolabait betikotasunean sartzen dala esan dezakegu, naiz eta, jayotzean ere, egitan, ortan sartzen dala bayeztu beat dugun aŕen.

Beraz iru gauza edo asmo ditugu emen, alkaŕen antzekoak dirala agertzen diranak, alkartasun ertsian ikusi beat ditugunak; baña gauza ber-bera eztiral ere, alkartasun ortan gizadiarentzat bakaŕik diralako. Beste izakientzat ezin guzti ori azpegi berean begiratu; oŕengatik, apika, naiz bizia, naiz izaera, naiz betikotasuna, iru izaki-multzoai buruzko asmoa aztertzea egokia edo izango zaigu. Lenengo izakia gizakia dugu noski, bigaŕena abere ta landareak osotzen dute, ta irugaŕena bizi gabeko izakiena da.

Len ikusi dugunez gizakiaren izaera jayotzen danean asten da, enurarik gabe, naiz eta, benetan, ernalduta izan danean bada ere. Bein jayo ezkero bizi-duna bada, bizi betean dago ta bizi ortan ba-du bere izaera ere ta betikotasunean sartu da zearo; jayo baño len etzan ezer, edo ia ezer, jayo ta orduxetik ba-da, bizi da, bere izaeran kokatu da, bai ta betikotasunean be. Bakoitzarentzat izaera berea da, berarena bakaŕik, eta bizia bezela; betikotasuna, ordea, egoteko era bat edo dalako, ez da berea bakaŕik ororena baño, egitan bera ta guztiak egokera berean, egokera berezi batean sartu dira. Alakotz, bizia ta izaera, izatea bezela begiratu beat ditugu, ta betikotasuna egotea bezela. Ota gizakiarentzat izan eta egon asmoak nola agertzen zaizkigu argi.

Bizia ta izaera, ain alkaŕen antzekoak izanaŕen, eztira gauza bera. Bizia da-la-ta, gizakiarentzat joan, etoŕi, ibili ta egin be adierazten zaigu zeatzez; izkera dala-ta izatearen azpegian ikustekoa da soilik. Oŕelaxe, irurak —bizia, izaera ta betikotasuna— ongi zedaŕiturik oartu ditezke garbi. Bizia ta izaera bakoitzarentzat noizpait asten dira, betikotasuna ez da bakoitzarekiko asten, eta bere zentzuna noizpait asi dala ezin esan dezakegu; bidezkoa da atela ustea. Ori da asieran buruz ikustekoa duguna. Amayari buruz, ordea, bizia eriotzaz amaitzen da, ez ala ere izaera, ta au amaitu ez baña eraz aldatzen da, lengo bizidu-na gorpu biurturik. Jakiña, gizakiarentzat bizia bi eratan agertzen da, soñean eta gogoan; ta egiz biziaren amaya soñari bakaŕik dagokio, ez, iñoiz, gogoari.

Naiz bizia naiz izaera izaki bakoitzean dagoz, berarengan eta bere baitan; nolabait biak gizaki bakoitzarenak dira, bakoitzari dagokion bezela; biak bakoitzarengan eta bakoitzaren baitan dagoz, bakoitzari bakaŕik dagozkiolarik; eta

bakoitzari buruz ari bagera berdin ari-izan gindezke gizaki guztiai buruz ere. Betikotasuna, ordea, naiz bakoitzarekiko naiz ororekiko berdin da, berbera da, ta bere betetasunean oro bildurik dauka.

Abere ta landareai buruz bizia ta izaera, gauza berbera dala esan edo dezakegu. Jayotzean asten dira bientzat biak, eta eriotzaren egipenean amaitu be berdin egiten zaye. Oyentzat eztago betikotasunik, edo obeto esateko, oyek ez dira iñoiz betikotasunean izango; oyek izanezanetik izanezan arte bizi dira edo izaera dute, eta jayo baño len ezer izan ezpaziran, il ondoren ezer ere ez dira izango. Biziera ta izaera gertatzen dira oyentzat soilik; beraz, ezberdintasun aundia agertzen da gizaki ta oyen artean. Abereak eta landareak be eztira berdin, lenengoak zentzundunak dira ta bigaŕenak ez; eta oyek ere orela guztiz zedaŕiturik agertzen zaizkigu ezamezik gabe.

Gauzak eztira jayotzen ez eta iltzen ere, gizaki, abere ta landareak bezela. Oyetatik asko betidanik dagozela uste dezakegu, edo betidanik ezpada, bai sortuak izan ziranetik bederen. Oyetan eztago bizirik, baña izaera bai, berak, bakoitza bere tokian, baitagoz, eta orela izaera egoteari buruz bakarik dagokiela ikus dezakegu.

Gauzak, noski, zentzungabekoak dira ta iru mota auetan ikusi ditzakegu geyenak; senda"-, ubil eta lazpel, eta mota oyen artean sar ezin ditezkenak ere: gogoa, adimena, oldozmena, ezaguera, ...; oroimen eta giza-gogoan dagozen beste almenak; argia, soñua, usain, txasta, ikui; aize, egu, egurazti; yakintza ta ezaguerak; maitasun, zaletasun, goŕoto, iñartzi ta abar eta abar, ezin oŕelakoak edo oyen antzekoak diran ainbeste zerki, ..., nun-nai dagozenak aipatu. Ezin esan dezakegu oyetan bizirik dagoela, baña bai-dirala edo ba-dagozela, ta orela guzti guztiak izaerari dagoz, bertan nolabait zedaŕiturik, bizidun eta zentzundun guziak bezela.

Alakotz, izaerak guzia biltzen du edo guzia izaeran dago, ezinbestean kokaturik. Eta izaera ez da bizia ez eta betikotasuna ere, eta bizia ta betikotasuna izaeran dagoz; orduan bi oyek baño lenagokoa al da izaera?; ezin ori be esan, eta ba-dirudi edozein gauza izaten asten dan unealdian berean, bakoitzarentzat ere izaera agertzen dala. Zer ote da, beraz, izaera?, egokera bat?; zentzundunentzat orixe dala uste diteke, bakoitza jayotzen da ta jayotzean bizian dago orduantxe ta izaeran ere, ora egokera argi ikus ditekela; jayotze, bizi-izate ta 'egote batera izaeran kokaturik bezela agertzen zaizkigula. Zentzungabekoak, ordea, noizdanik dagoz izaeran?, sorturik izan ziranetik edo norbaitek sortu zituenetik; oyentzat sortzea, zentzundunentzat jayotzea dana baita, edo nolabait antzekoa bederen.

Izaera, alakotz, izatearen egokera dala esan dezakegu, len galdetu dugunez, zerki bakoitzarentzat izatean asten dan unealdi berean agertzen dala; ta bakoitzari buruz izan baño lenago iñun ez dagoela. Jakiña izan baño lenagokoa izaneza dala diñogu; baña, egiten, dala esan al dezakegu?, ezer ezpaita; ez dana nola zer dan esan? iñola noski, guztiz eziña dugu ori; orela izaneza gure baitan eratzen dugun asmo bat baño besterik ezta.

Izan al diteke izaera beste asmo bat bakarik?; orixe esan ezin dezakegulakoan gagoz, izaera zerbait ba-dala ukagaitza baita, izateaz azaltzen dana; gauza bera aldira izatea ta izaera?, ez dugu uste gauza berbera dirala, bearbada izaera izatearen egipena dala esan genezake, ta edozein eraz asmo biak orela guztiz alkarturik agertzen zaizkigula ikus ditzakegu, zerki bakoitzarentzat agertzen dala, eiki, izaera lits bateaz; zentzundunentzat ez edo dago litsik eta guzientzat berdin agertzen dala ikusi diteke; baña zentzungabekoentzat ezin

guzientzat orixe bera esan; e.b.: zer da izaera betikotasunar buruz? Betikotasuna, itzak adierazten duen bezela, betikoa da, ez du izan asieratik eta amairik ere ez du izango; alaz ere betikotasunaren izaeraz mintzatzen gera noiz-nal, betikotasunak bere izaera ba-duela adierazten; eta betikotasuna betikoa dan ezkero oŕela be izan bea bere izaera ere.

Baña izaera ez da, beti, betikoa, batzuetan eta izaki batzuetarako amitzen dalako; e.b.: tximist-indaŕa igarotzen danean bere izaera ba-duela diñogu, baña bein igaro ezkero bere izaera ere galtzen du. Oŕengatik, apika, izaeran oro ba-dagoela adierazteko, asmoa da ta ez edo da besterik; alakotz, egokera ta izaera batera datoz guzirako, egon eta izan, lits bereziak agertzen, gauza bera baterako dagozkionak.

Orduan, izaera, benetan, izakera bezela ikus diteke, ta oŕela aipatu ditugun egoera ta izaera esan baño egokiago deritzaigu egokera ta izakera esatea; orotarako "era"'k asmoa adierazten du, ots, nor-gabe edo zin-gabe dana; ta "kera"'k asmo oŕi dagokion egipena adierazten du ertsiki, ots, bere zeatza. Alakotz, izaera ta egoera goiko galga berean ditugu biak, eta izakera ta egokera beste galga batean, lenengotik sortzen dana.

Oŕengatik edo, izaera aipatzean, beti, goi-goyeneko galgan ari gerala adierazten dugu ezeri atsikita egon gabe, ta atsikitasun ori agertzen danean, nor edo zein edo zer dan bati dagokionean bakaŕik izakera bezela ikustea egokiago dirudi; "ízan", "egon" biurtuta.

Norberaren baitan agertzen da beti izaera, ta norberarengan izakera, asmo biak nola adierazten duten egokiro azaltzean eta onela ere berezi ditzakegu biak alkaŕenetik. Baña asmo bietatik lenengoa da, berezikik, aztertzeko nagusiena.

Noski, ez da efaz notin batentzat bere baitan eta beragan asmoak, lenengo zentzunak batik bat bigaŕenetik at erabiltzea, soilik aztertzea; baña orixe da, ain zuzen, emen egin nai duguna. Beraz, izaera edonori buruz ikustea dugu gure eginkizun bereziena. Eta goiko zentzun ortan izaera ikustea da gure elburu nagusiena.

Esan dugun guzitik ateratzen danez, zerbaiti atsikita egon gabe, zala edo da izaeraren gogaya argi ikustea, zabaldi guzian dagoen orad dagokionez begiratzean. Eta izaera guziai dagokie bete-betean, ortan zalantzik ez; baña oro dan guzitik at ikustea nai dugu, izaeraren egia bera dan bezela ulertzeko. Izaera ez da, noski, ikutu diteken ezer, baña ba--dirudi asmo bakaŕa baño geyago dala; ta geyago ori nola atsiki dezakegun ikusi beaf da, ortan zailtasun aundia edo dagoelarik, ezerekin alkartu gabe begiratzean.

Izaera itzaren ondorio bezela izakera dugu, bi asmo auek adierazteko: lenengoa emen aurkeztu duguna bera da, ta bigaŕena nolabait ondorioa ere dana, izatearen edo egotearen era, bakoitzean izaera nolakoa dan jakin-erazten diguna, izaki bakoitza bere izaeraz nola agertzen zaigun azaltzean.

Guziaren laburpena bezela auxe da esan ditekena: Izaera guziai dagokiela, bakoitzari era bereziaz noski, baña izan, bizi ta egoten dan guziari, bidezkoa danez. Izaerak, alakotz, orotasuna du bere nolakotasun zeatza, guzia inguratzen eta guziari eustean. Ez da ikusten dan ezer, ez eta guregan sortu diteken edozein burutapenik ere; beraz gugandik at dagoen zerbait, geu be, oro, izaeraren barnean gagozelako. Zer edo da, orduan, benetan, izaera? Onela edo ageŕerazi liteke ongienik, itz labuŕetan, izaera zer dan adierazteko nayean: Izaera izate ta egote guziaren egipena da, besterik ez.

U estarazui'tar And ni